



Iturbe

etxebizitza

Aldaerak:

Ahozkoa: Itúrbe / Ártabillena

“... la casería rústica titulada Yurbe y su casa accesoria... situadas en la barriada de Sarria jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprenden juntamente con sus zaguanes y dos tejabanas trescientos setenta y ocho estados cuadrados superficiales de planta solar, y las que se componen de piso bajo y alto a manera de entresuelo, siendo la una de dos viviendas y la otra de una, con sus correspondientes cuadras y habitaciones...”
DJE, 1/210 or. (1868)



43° 11' 27"

2° 36' 5"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Jausita dagoen baserribaserrri honen gaineko lehen arrastoa XVIII. mende hasieran aurkitu dugu: *Yurbe* (1704, Bizkaiko su-erroladak). Dokumentazioan beti forma berarekin aurkitzen dugu erregistratuta: *Yurbe* (1825, PE eta 1866, DJE, 2/ 33. or.). 1967ko Udal-errolan, berriz, *Iturbe* agertzen da, hasierako y grekoa i latinoarekin ordeztuta. Kasu batzuetan, *Yúrbes* (1859, BUA, Nmcr.) izena aurkitzen dugu bertako etxei erreferentzia egiteko. Izan ere, eremu horretan Iturbe etxeak hiru ziren: *Iturbe*, *Iturbeazpikoa* (**Ikus Iturbeazpikoa**) eta *Iturbegoitia* (**Ikus Iturbegoitia**). Auzotarren artean,

ahozko transmisioan *Itúrbe* eta *Ártabillena* izan dira erabilitako formak.

Egun sasi artean ezkutatuta dagoen arren, etxebizitza biko baserria XIX. mendeko tankeran eraiki zuten, bi isurkitako teilatuarekin. Harlangaitzezko hormak luzituta eta pintatuta izango zituen ziurrenik, kantale- eta leiho-ertzetako harlanduekin kontrastea eginez. Beste baserrietxe batzuen estiloan, ganbarako solairuan zuzeko balkoia zeukan.

toponimia

Izenaren osagaiak gardenak badira ere, iturri eta behe, ezin dugu hitz pare bat esan gabe utzi. Euskaraz oso ohikoa da iturri hitza duten izenetan itur agertzea eta horrela dokumentatzen da baserri hau ezagutzen dugunetik. Gainera sorrera XVI. mendean duen deitura ere Iturbe da eta honek esan gure du ordurako -i hori desagertuta zegoela. Iturbe oso izen arrunta da eta horrela deitzen diren baserriak daude, edo egon dira, Aramaioko Barajuen auzoan, Araban; Dima, Elorrio, Igorre, Markina eta Zaldibarren Bizkaian eta Antzuola, Bergara, Ikaztegieta, Sorraluze eta Urretxun Gipuzkoan. Guk dakigula ez dago ez Iparraldean ezta Nafarroan ere. Behe hitzaz ere badago zer esan. Kasu gehienetan behekoa bada ere Alfontso Irigoien zenak uste zuen izen zaharretan txikia ere esan nahi zuela.